

## 3. GENEROA

### SARRERA:

- Pertsonak komunikabideetan beren generoaren arabera dituzten eskubideen lege-babesa askoz ere txikiagoa da adingabeei eskaintzen zaiena baino.
- Zehazki, Espainian, soilik *Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan* jasotzen da:
  14. artikulua: Komunikabideek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren babesa eta zaintza sustatuko dituzte, haien arteko diskriminazio oro saihestuz.
    - Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko informazioa zabaltzean, dagokion informazio-objektibotasunaz, indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien seme-alaben giza eskubideen, askatasunaren eta duintasunaren defentsa bermatuko da. Batez ere, arreta berezia jarriko da informazioen tratamendu grafikoan.
- Testuinguru horretan, kodeek, kazetaritza-estilo liburuek eta gainerako autorregulazio-dokumentuek zer ezartzen duten aintzat hartu behar da.
- la guztiek generoaren araberako informazio-tratamenduari buruzko aipamenei bat jasotzen dute, batez ere bi alderditan zentratuz:

### – Ez diskriminatzea genero-arrazoiak direla eta:

- Gehienek diote ez dela diskriminatu behar informazioetako protagonisten sexua dela eta, zehaztaperen gehiagorik gabe.
- Beste batzuek 'estereotipo matxistak eta sexistak' saihestu behar direla ere ezartzen dute.
- Batzuek ideia handiagotzen dute, eta 'sexu-orientazioa' edo 'sexu-morala' arrazoiengatiko diskriminaziorik ezaz ere hitz egiten dute.

### – Genero-indarkeriaren tratamendua:

- Komunikabideetan tratatzeko orientabideak eskaintzen dira, hainbat deitura erabilita:
  - Sexu-delituak
  - Indarkeria sexista
  - Genero-indarkeria
  - Emakumeen aurkako indarkeria
  - Bortxaketa kasuak...

## 3.1. EZ DISKRIMINATZEA GENERO-ARRAZOIAK DIRELA ETA

### 3.1.1. TESTUINGURUA

#### PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ SEXISTARAKO KODE DEONTOLOGIKOA EUSKADIN

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko duten ereduak proposatu behar dira.
- Hedabideek uko egin behar diote sexu-diskriminazioko jarrerak, jokabideak eta egoerak normaltzen edo sustatzen dituzten irudi eta diskurtsoak erabiltzeari.
- Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatu behar da nahitaez, biak ala biak agertuz informazio-iturri gisa, baita irudiak eta hizkuntza lantzean ere.
- Agenda zabaltzeko eta dibertsifikatu behar da, gizartearen esparru guztietan hainbat zeregin betetzen ager daitezkeen emakumeak, eta haien ekarpenak aitortu eta balioetsi daitezkeen.
- Hainbat lan mota eta lanbide betetzen irudikatu behar dira, hala esparru publikoan nola pribatuan, gure gizarteko errealitatearekin bat etorritik.

- Agerian jarri behar da zein anitzak diren emakumeak eta gizonak adinari, azalaren koloreari, herritartasunari, genero-identitateari, sexu-joerari, gorputz motari, joera estetikoari, gaitasunei eta abarrei dagokienez.
- Ikuspegi inklusiboan alde egin behar da, emakume eta gizonen errealitate estereotipatuak azaltzen dituzten ikuspuntu partzialak erabili ordez.

#### BERRIA

- Gay, lesbiana, transexual eta bisexualen ikusezintasunari buru egiten saiatu behar da, baita sexualitateaz bestelako gaietan ere.
- Gizonei eta emakumei tratu simetrikoa ematen ahaleginduko da.
- Informazio iturriak orekatzen saiatuko behar da, gaia zeinahi dela. Emakumeek, albisteko protagonista ez ezik, informazio iturri ere izan behar dute.
- Emakumeen presentzia handitzeko eginahalak egin behar dira eta, alde horretatik, oreka zainduko da aditu eta iritzi emaileengana jotzeko orduan ere.
- Sexualitatearen eta maitasun harremanen aniztasuna islatuko da, ikuspegi heterosexistatik gabe.

#### EITB

- Gizonak eta emakumeak berdin-berdin agertuko dira ekintzaren subjektu gisa.
- Genero-ikuspegia jazoeren kontakizun inpartzialean oinarritzen da, eta, horrenbestez, informazioa du euskarri, iritzia baino gehiago.
- Informazioan emakume-eredu desberdinak erakusteko ahalegina egingo da, errealitatearekin eta gizartea eraldatzeko konpromisoarekin bat eginez.
- Ildo horretatik, baliagarria da egintza horien adibide zehatzak ematea («X den lehen emakumezkoa», «X ardura hartu duen lehen gizonezkoa»).

### 3.1.2. ESTEREOTIPOAK, TOPIKOAK EDO KLIXEAK, INFORMAZIOAREN PROTAGONISTEN GENEROARI DAGOKIONEZ

#### PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ SEXISTARAKO KODE DEONTOLOGIKOA EUSKADIN

- Kazetaritzako mezuak lantzean, estereotipo eta genero-rolik gabe azaldu behar dira emakumeak eta gizonak.
- Ez arriskaraztea informazioen zehaztasuna aurreiritzi eta estereotipo sexistak birstortuz.
- Bazter utzi behar dira ikuspuntu androzentrikoak; hau da, albistek pentsatzeko eta idazteko garaian gizon (eta, zenbaitetan, emakume) eredu jakin bat hartzen dutenak erreferentziazko subjektu bakar moduan.
- Bazter utzi behar dira estereotipo sexistak (sexu-objektua, laguntzaile ederra, emakume zaintzailea, etxekoandrea...).
- Estereotipoekin eta zenbait balio, jakintza eta ezaguera eskusiboki emakumei edo gizonei egoztearekin amaitzea.
- Adierazi behar da berdin-berdin errespetagarriak eta erakargarriak direla, hala emakumeentzat nola gizonentzat, bai tradizioz «femenino» gisa jotako balio eta jakintzak (zaintza, enpatia) bai tradizioz «maskulino» gisa jotakoak (lehiakortasuna, boterea, arriskua).
- Hedabideak gizartearen errealitateari egokitu behar zaizkio, eta dagoeneko izan diren aldaketak sustatu, konbentzionalismo eta aurreiritziak berrikusi, eta emakumeen eta gizonen berdintasunean benetan izandako aurrerabidea irudikatu (adibidez, emakumeak autoak erosi eta gidatzen dituztela eta gizonek garbiketa-produktuak erosi eta erabiltzen dituztela onarturik).

- Errespetuaren eta ezagutzaren proiektzioa orekatu behar dute, erakutsiz autoritatea eta gaitasuna ez direla gizonezkoen ondare, eta saihestuz emakumeak mugatu, mendeko, anonimo eta biktima gisa irudikatze joera gehiegizkoa, hain kaltegarria gazte eta nerabeak gizarteratzeari dagokionez.
- Alboratzekoak dira emakumeak gizonen mende jartzen dituzten rola, bai eta emakumeen egoera pertsonal nahiz soziala gutxiago den iradokizunak ere.
- Ez erabiltzea emakumeen edo gizonen gorputza audientzia gehiagotzeko erakargarri gisa.

#### BERRIA

- Emakumeek ez dute talde homogeneorik osatzen. Beraz, estereotipoak eta topikoak saihestu beharra dago.
- Bai elkarrizketatuei eginiko galderetan, bai albisteari emaniko tratamenduan, kazetariak baztertu egingo ditu hala genero rolei loturiko galdera topikoak nola estereotipoak sendotzen dituzten kliseak.
- Ez da erabiliko estereotipo sexistei loturiko adjektiborik.
- Gay, lesbiana, transexual eta bisexualek ez dute talde homogeneorik osatzen. Beraz, estereotipoak eta topikoak saihestu beharra dago.

#### VOCENTO

- Vocentoko egunkariak emakumearen sustapenaren aldeko apustua egiten dute, gizonarekiko benetako berdintasuna bultzatzen duten diskriminazio positibo batzuen aldekoak dira eta, emakumeen prestigioa kaltetzen badute, ahal duten guztia egingo dute topiko matxistak eta hizkuntzaren huts egiteak saihesteko.

#### EITB

- Genero-orekaren alde egin behar da informazio-iturriak bilatzen direnean. Emakumeak era guztietako estatusetan eta era guztietako edukietan egin behar dira ikusgai, eta estereotipoak alde batera utzi behar dira: emakumezko ikaslea/gizonezko irakaslea, emakumezko erizaina/gizonezko medikua, emakumezko idazkaria/gizonezko zuzendaria, eta abar.
- Emakumezkoak deskribatzeko ez da itxura kontuan hartuko, ez eta egoera zibila, egoera sentimentala, amatasuna eta abar ere, gertaerak ulertzeko behar-beharrezkoa ez bada.
- Informazioak ez dio tokirik egingo arrakasta profesionala eta feminitatea baztertzailerik gisa aurkezten dituen inongo eredurik.
- Era berean, emakumezkoen arrakasta ez da edertasunarekin edo sentsualitatearekin lotuko.
- Aukera-berdintasunarekiko konpromisoa hartuz gero, tratamendu informatiboak genero-estereotipoak zalantzan jarri behar ditu, eta desberdintasun-egoerak salatu eta agerira atera behar ditu.
- Tradizionalki emakumezkoen egokitutako gaiak (pertsonak zaintzea, artisautza, moda, e. a.) ikuspuntu positiboa izango dute, haien garrantzia agerian jarriz eta haien dimentsiorik hutsalena bazter utziz.
- Alde batera utziko dira marjinazio-estereotipoak, hala nola, nazionalitatea, sinesmenak, kultura edo inguruabar sozioekonomikoak aipatzen dituztenak.

#### RTVE

- Haien duintasuna kaltetzen duten emakume-ereduak saihestea. Emakumeei gizonezkoenak baino balio eta funtzio sozial txikiagoak ematen dizkieten estereotipoak desagerrarazi behar dira. Aldiz, emakumeen ordezkariak handitu behar da, eta garapen kultural, politiko, ekonomiko eta sozialean duten zeregina erakutsi.

### 3.1.3. HIZKERA. GENEROARI ETA ERABILERA GRAMATIKALEI BURUZKO ARGIBIDEAK

#### BERRIA

- Hizkera homofoborik, lesbofoborik, transfoborik eta bifoborik ez da onartuko.
- Hizkera sexistarik ez da onartuko:
  - *Gizon* hitza *gizonezko* adierazteko erabiliko da. Bi sexuetakoko pertsonak izendatzeko, *pertsona*, *jende* edo *gizaki* idatziko da.
- Familia loturen aipamen alferrikakorik ez da egingo. Albisteari estu loturiko datua baldin bada bakarrik aipatuko da ahaidetasuna edo harreman pertsonala. Dena dela, betiere izen abizenak idatziz identifikatuko dira pertsonak, eta sekula ez familia lotura hutsekin.
- Albisteetako protagonistak aipatzeko, irizpide berak erabiliko dira beti, aipatua gizona izan zein emakumea izan. Hala, lehen aldiaren izen abizenak idatziko dira, eta hortik aurrera, abizena bakarrik.
- Oro har aritzeko, gay eta lesbianak idatziko da, eta ez homosexualak. Izan ere, homosexual hitza bakarrik erabiltzeak ikusezin bihurtzen ditu lesbianak. LGTBI sigla ere erabiliko da (lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualak).

#### VOCENTO

- Vocentoko egunkariak ahal duten guztia egingo dute emakumeen prestigioa kaltetzen duten hizkuntza-akatsak saihesteko, baina hizkuntzaren barne-arauak desitxuratzen dituzten ohiko hizkuntza-akatsetan erori gabe (ez da esango, adibidez, *los vascos* y *las vascas*).

#### EITB

- Errotik ezabatu behar dira emakumeak ikusezin egiten dituzten hizkuntza-erabilerak, adibidez, gaztelaniaz maskulino generikoaz abusatzea («los padres» esatea, «las madres y los padres» esan ordez).

#### RTVE

- Maskulinoa bi sexueterako: izaki bizidunak izendatzen dituzten substantiboen maskulino gramatikala sexu maskulinoari erreferentzia egiteko erabiltzen da, baina, baita, espezieari ere, sexuak bereizi gabe: *gizona da animalia arrazional bakarra; katua etxeko animalia ona da*.
- Gauza bera gertatzen da pluralean erabiltzen direnean: *Historiaurreko gizonak animalien larruekin janzen ziren; nire auzoan katu asko daude*.
- Bi generoak soilik sexuen arteko oposizioa garrantzitsua denean zehaztu behar dira: *La proporción de alumnos y alumnas en las aulas se ha ido invirtiendo progresivamente*.
- Kolektibo mistoak aipatzeko, politikarien eta zenbait kazetariren artean bi sexuak aipatzeko ohitura (*los alumnos y las alumnas*) zabaldu da, soluzio artifizialetera jotzeko ohitura (*los y las alumnas*) eta baita zeinu linguistikoa ez dena a bilduaren sinboloa (*alumn@s*) argitalpenetan erabiltzekoa ere.
- ‘Politikoki zuzena’ dirudien arren, akats gramatikala da eta, muturreko kasuetan, idazketa zentzugabeak eragingo lituzke: *Algunos y algunas alumnos y alumnas son extranjeros y extranjeras, principalmente rumanos y rumanas y chinos y chinas*.

## 3.2. GENERO–INDARKERIAREN TRATAMENDUA

### 3.2.1. TESTUINGURUA

#### PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ SEXISTARAKO KODE DEONTOLOGIKOA EUSKADIN

- Hedabideetan emakumeen aurkako indarkeria tratatzean, etikaz eta zehatz informatu behar da, sentikortasuna eta gizartearen gaitzespena sustatuz, indarkeria guztiz desagerrarazteko. Ez soilik indarkeria muturrekoenaren agerpenak (tratu txarrak, erailketa), baita ohikoenak eta normalduenak ere (hainbat esparrutako jazarpenak, tratu txar sotilak, mikromatxismoak, etab.), betiere, begirune berezia erakutsiz zuzeneko biktimei eta haien ingurukoei.

#### BERRIA

- Indarkeria matxista giza eskubideen urratzea da, pertsonen askatasunaren eta duintasunaren kontrakoa, eta hala tratatuko da. Gizarte egiturak sorturiko arazoa izanik, ezin aurkeztuko da maitasun gehiegiaren edo erotasunaren ondorio gisa.

#### PÚBLICO

- Errugabetasun–presuntzioa beti errespetatuko dugu epai irmoa egon arte. Baina erasotzaileak behar bezala identifikatuko ditugu kondenatuak izan direnean. Garrantzitsua da erasotzailearen profila eta haren jarrerak deskribatzea, beste biktima batzuek erraz antzeman ditzaten tratu txarren portaera eta jarraibideak.

#### EITB

- Indarkeria matxista ez da gertakari bat eta, hortaz, ez dagokio gertakariei egiten zaien jarraipen–mota.
- Giza eskubideen urraketei eta pertsonen askatasunaren eta duintasunaren aurkako atentatuei egiten zaien jarraipen–mota dagokio.
- Indarkeria matxista ez da agresio bat jazotzen denean bakarrik agertuko albistegietan; gaiarekin zerikusia duten ekimen guztien berri eman behar da: erakundeen kanpainak, prestakuntza–egitasmoak, publizitate–kanpainak, poliziaren edo epaileen jarduerak, e. a.
- Tratamendu informatiboak aintzat hartuko du genero–indarkeria esaten denean sexu eta/edo genero–identitateagatik eta sexu–orientazio eta/edo jokabideagatik gauzatzen den biolentzia oro biltzen dela.
- Biktimak ez dira erantzule gisa agertuko tratu txarrak ez salatzeagatik.
- Ez da agresioaren zergatien gainean espekulatu behar: itxura fisikoa, jelosia edo bestelako arrazoi emozionalak, agresio–egilearen edo biktimaren izaera, alkoholaren edo drogen kontsumoa, arazo ekonomikoak, e. a.
- Genero–indarkeriaz informatzen denean, kasuak ez dira harreman sentimentalen esparruan kokatu behar. Halakoetan, harremanak menderakuntzazkoak dira, ez maitasunezkoak.

#### RTVE

- Tratu txarrak eta emakumeen aurkako indarkeria biktimen bizitzaren, duintasunaren eta osotasun fisiko eta psikikoaren eskubidearen aurkako atentatua dira. Pasio–hilketa gisa aurkeztu ezin diren delituak dira.
- Garrantzitsua da kasu bakoitzaren inguruan dauden zirkunstantziak osatzea: aurrekari polizial edo judizialak, hartutako neurrien ez–betetzeak –halakorik izan bada– edo biktimak jasotako laguntzari buruzko informazioa, etorkizunean tratu txarrak jasan ditzaketen emakumeak ohartarazteko helburuaz.
- Erasotzailea definitzeko "jeloskor" edo "edale" bezalako adjektiboak erabiltzeak errugabetzera hurbil dezake.

- Biktimari buruz, adibidez, "gaztea eta polita zen", "lagunekin ateratzen zen" edo "maitale bat zuen" esateak benetan garrantzia duena desbideratzen du eta tratu txarren egilearen barkamenera edo ulermenera hurbiltzen gaitu.
- Garrantzitsua da argi uztea nor den erasotzailea eta nor biktima. Hala ere, beharrezkoa da errugabetasun-presuntzioa errespetatzeko betebeharra gogoraraztea eta, beraz, kontu honetan zuhur jokatzeko, identitate-akats batek ondorio konponezinak eragin bait ditzake.
- Eta are garrantzitsuagoa da argi eta garbi azaltzea nolakoa den tratu txarrak egin dituen, nola jokatzeko duen eta nolako portaera publikoa edo pribatua duen, horrek balio bait dezake emakume asko arrisku-egoeraz jabetzeko.

### 3.2.2. INDARKERIA SEXISTAREN BIKTIMEN (ETA USTEZKO ERASOTZAILEEN) INTIMITATEA

#### FAPE

- Delitu baten biktimak izendatzea saihestuko da, bai eta haien identifikatzen lagun dezakeen materiala argitaratzea ere, eta arreta bereziz jokatu da sexu-askatasunaren aurkako delituak direnean.

#### BERRIA

- Biktimen intimitate eskubidea zorrotz errespetatuko da, eta beti aintzat hartuko da beren izen-abizenak jakinaraztea nahi duten edo ez.

#### EL PAÍS

- Bortxaketa kasuetan, ez da biktimaren izena jarriko, eta inizialak edo datu generikoak (adina, lanbidea, nazionalitatea) soilik erabili ahal izango dira, baldin eta identifikatzen ez badute. Halaber, inizialak erabiliko dira poliziak atxilotutakoak edo formalki delitu batengatik akusatutakoak adingabeak direnean (18 urte).

#### LA VANGUARDIA

- Bortxaketen eta tratu txarren biktimen anonimotasuna babestu behar da, biktima horiek identifikatzeak oraindik kalte handiagoak eragingo lituzkeelako.
- Tratu txarren akusatuen edo susmagarrien anonimotasuna gorde behar da, horiek identifikatzeak biktima nor den adieraziko lukeelako, normalean bikotekidea.
- Biktimaren eta erasotzailearen zuzeneko senideen (seme-alabak, gurasoak eta anai-arrebak) anonimotasuna gorde behar da, familiaretan tratu txarrak gertatzen direnean eta adingabeak abusatutakoak direnean; izan ere, identifikazioak biktimaren nortasuna erakutsiko luke.

#### LA VOZ DE GALICIA

- Oro har, ez da jakinaraziko sexu-erasoak bezalako delituen biktimen nortasuna, horrek gehigarriko kalte ekarriko bailieke emakumeei. Kasu horietan, irakurleari albistea hobeto ulertzen lagunduko dioten pertsonaiei buruzko datuak eman daitezke, betiere horrek saihestu nahi den identifikatzera eramaten ez badu.

#### EITB

- Biktimen intimitatea eta mina zaindu, haien anonimotasuna gorde, eta kalte egin diezaieketen datuak isildu egin behar dira.
- Haien aurpegia ezkutatu egingo da, biktimak berak edo beraren senideek gertatutakoa ikusgai egiteko eta hedabideetan ateratzeko nahia azaldu ezean.
- Ez da emango biktima edo erasotzailea identifikatzea edo kokatzea ahalbidetzen duen daturik: adibidez, etxebizitzaren kanpoaldea, lantokia, e. a.

#### RTVE

- Biktima ezin da erakutsi haren baimenik gabe, ezta emozio-tentsio uneetan ere.

- Inoiz ez dira erabili behar biktimaren "lapurtutako" soinuak edo irudiak.
- Irudia baimenduta badago, ez besterik, zabalduko da, baina ez gertakarien zurrunbiloan, baizik eta autoestimua eta oreka emozionala berreskuratu ondoren.

### 3.2.3. SENTSAZIONALISMOA, DRAMATIZAZIOA EDO GERTAERAK BERRERAIKITZEA

#### PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ SEXISTARAKO KODE DEONTOLOGIKOA EUSKADIN

- Emakumeen aurkako indarkerian sentsazionalismoa errotik kendu behar da.

#### BERRIA

- Horrelako gertaerak deskribatzeko orduan, pertsonen duintasuna errespetatuko da, eta sentsazionalismoa baztertuko.

#### PÚBLICO

- 'Informazio-tratamendu desberdinak' bilatuko ditugu, morboa eta interes soziala inoiz nahastu gabe (argazki eta xehetasun zantarrak saihestuko ditugu. Hala, ez da komeni, adibidez, labankada kopurua zehaztea, eta abar).

#### EITB

- Indarkeria sexistari buruzko informazioaren ezaugarriak ezin daitezke izan ikuskizuna, sentsazionalismoa edo morboa.
- Gertaeren dramatizazioa eta sorberritzea, edo irudi eta testimonio bereziki gordinak, salbuespen modura erabiliko dira. Gertatutakoa ulertzeko informazio osagarria ematen dutenean baino ez da halakoetara joko.

#### RTVE

- Ez nahastu morboa eta interes soziala. Kriminalizazio itxura ematen duten biktimak ezkutatzeko baliabideak saihestu behar dira: mosaiko efektua, begien estaldurak, mozorroak, ahotsaren distortsioak...
- Saihestu egin behar dira xehetasun zantarrak edo biktimarekiko morboa edo atsekabea eragiten duten lehen planoak eta gertaeren berreraikitzeak.
- Xehetasun eta irudi zantarrak ez dituzte tratatu txarrak gaitzesten, eta, aldiz, ikuskizunari lagundu egiten diote.
- Hizkera bortitza erabiltzeak erasoaren arrazoiak indargabetzen ditu.
- 'Labankada zuzena', 'Gorpu odoloztatua', 'Labankadaz josia', 'Odol-orban handia zegoen' eta antzeko esamoldeek ez funtsezko alderdietara zuzentzen dute arreta, erasoaren benetako arrazoiekin bateraezinak direnak.

### 3.2.4. ERAGIN NARKOTIZATZAILEA INDARKERIA MATXISTAREKIN LOTURIKO INFORMAZIOETAN

#### PÚBLICO

- 'Eragin narkotizatzailea' saihestuko dugu: indarkeria matxistari buruz egunero informatzea *narkotizatzailea* izan daiteke. Horregatik, ez dugu inoiz "beste kasu bat..." bezalako esamolderik erabiliko.

#### EITB

- Ez da erabiliko «berriro ere ... kasu bat», «beste ... kasu bat» edo antzeko esapiderik, indarkeriazko gertakariei garrantzia kentzen dien efektu sorgortzailea ekiditeko.

## RTVE

- Informazio mota hori etengabe zabaltzeak 'eragin narkotizatzailea' izan dezake ikus-entzuleengan. Hori saihesteko, profesionalak tratamendu informatibo desberdinak eta berriak ezarri behar dituzte, "kasu bat gehiago", "beste kasu bat..." bezalako formulak saihestuz.

### 3.2.5. GENERO-INDARKERIA IZENDATZEKO ESAMOLDE ZUZENAK ETA OKERRAK

#### Zuzenak:

- Genero-indarkeria (Público, EITB)
- Indarkeria matxista (Público, EITB)
- Indarkeria sexista (Público, EITB)
- Emakumeen aurkako gizonaen indarkeria. (Público, EITB)

#### Okerrak:

- Etxeko-indarkeria. (Público, EITB)
- Bikote-indarkeria. (Público, EITB)
- Familia-indarkeria. (Público)
- Familia barruko indarkeria (EITB)

### 3.2.6. ERASO SEXISTEN GERTAERATAN ITURRIEI, IRUZKINEI, TESTIGANTZEI ETA ADIERAZPENEI BURUZKO GOMENDIOAK

#### PÚBLICO

- Zurrumurruak saihestuko ditugu. Ez ditugu auzokoen iruzkinak sartuko, eta erne egongo gara senideen adierazpenekin.
- (Bestelakoak dira lekuko zuzenak izan direnen testigantzak eta ikusi/entzun dutena deskribatzen dutenak, espekulatu gabe).
- Poliziaren eta ikerketaren iturriak lehenetsiko ditugu.
- Adituen iritzia eta epai judizialak erabiliko ditugu.
- Heriotzarik gabeko eraso baten biktimak bere testigantza eman nahi badu, ez dugu berari edo haren inguruari kalte egin diezaiokeen daturik emango.

#### EITB

- Agresio sexista baten gainean informatzen denean, aditu eta iturri baimenduetara joko da.
- Senitartekoen, auzokideen eta lagunen adierazpenak informazio-balio argia dutenean bakarrik txertatuko dira.
- Agresioa testuinguruan jartzeko, informazio osagarria emango da. Zentzu horretan, hauek izan daitezke iturri baliagarriak:
  - a. Azterlan akademiko eta/edo profesionalak;
  - b. Indarkeriaren kontrako kanpainak;
  - c. Arduradun politikoak eta polizialak;
  - d. Kasuarekin zuzeneko zerikusia ez duten bestelako iturriak (proiektzio publikoa duten pertsonak, e. a.);
  - e. Artxiboko materiala.
- Muga jarri behar zaie agresioaren lekukoekin eta/edo biktimaren edo susmagarriaren lagunekin eginiko elkarrizketei. Betegarrietan errepikatzen diren topikoek ez dute inola ere laguntzen gertakariak ulertzen.
- Alde batera utziko dira agresio egilearen izaera nabarmentzen duten testimonioak («oso jatorra zen», «auzoko ona zen», e. a.).



## 4. TRAGEDIAK ETA MINA

### 4.1. TESTUINGURUA

- Gaur egun, hondamendien, istripuen, gertakarien eta abarren irudiak eta bideoak lortzeko erabiltzen diren prozedura klasikoekin batera, fenomeno bat gertatzen da: lekuko edo bertaratutako edozein herritarrek irudiak jaso ditzake eta, gailu mugikor elektronikoren baten bidez, berehala hedatu Internet eta sare sozialen bidez.
- Teknologia berriei esker, mota horretako albisteak dezente handitu dira, eduki eskuragarri gehiago dagoen hein berean.
- Horrek guztiak gero eta arreta eta prestasun handiagoa eskatzen die informatzaileei edukiak hautatzeko eta tratatzeko orduan.
- Min eta hunkipen–egoerak dauden gertaera tragikoei buruzko informazioa ematean, berriz ere pertsonen oinarritzko bi eskubide haztatu behar dira: informaziorako eta intimitaterako eskubideak.
- Askotan, inolako muga juridikorik ezartzen ez denean, informazio–askatasuna da eskubide nagusia, eta orduan ikusi behar da zer xedatzen duten eduki horien tratamenduari buruzko arau etikoek.

### 4.2. BIKTIMEN EDO HAIEN GERTUKOEN INTIMITATEA TRAGEDIEI BURUZ INFORMATZEAN

#### FAPE

- Herritarrek informatuta egoteko duten eskubidea babesteari kalterik egin gabe, kazetariak errespetatu egingo du pertsonen beren intimitaterako eta irudirako duten eskubidea.
- Intimitatean sartzeari buruzko murrizketak kontu handiz zaindu beharko dira ospitaleetan edo antzeko guneeetan ospitaleratutako pertsonak direnean.

#### BERRIA

- Informazioaren protagonisten ohorea eta duintasuna babesteko, ez da jakinaraziko istripuetan hildakoen edo larri zauritutakoen, eta hondamendien eta indarkeriaren biktima izan diren adingabeen izenik.

#### EITB

- Ezbehar, hondamendi eta istripuei buruzko informazioak nahitaez bateratu behar ditu informazio–eskubidea, biktimen intimitate–eskubidea eta ikus–entzuleek inpaktu bisual eta emozionalen aurrean babestuta egoteko duten eskubidea.
- Ezbehar, hondamendi eta istripuekin zerikusia duten informazioek biktimen eta biktimen senitartekoen sufrimendua, mina eta sentimendua errespetatzea dute mugatzat.
- Haien intimitatea eta pribatutasuna informazio–eskubidearen gaineratik egongo dira.
- Biktimen eta desagertutakoen identitatea ezagutzera eman baino lehen, senitartekoek eta lagunek izan beharko dute horren berri.

#### RTVE

- Errespetuzko informaziorako eskubidea: profesionalek beren lana egin behar dute adierazpen–askatasunerako eskubidea eta herritarrek beren intimitatea jakitera ez emateko duten eskubidea uztartuz. Errespetu horrek zorrotzagoa izan behar du biktimak gertatu diren gertakarien berri ematen dutenean.
- Natura–hondamendiei, atentatuei, gerrei edo istripu larriei buruzko informazioetan, profesionalek informazio egiazkoa eta argia bateragarri egin behar dute biktimek une zail eta mingarrietan publikoaren ikusgai ez egoteko duten eskubidearekin.

- Gauza bera esan daiteke tentsio handiko egoera pairatzen ari diren pertsoneri buruz. Izua deskribatu behar dugu, biktimei kalte gehiago eragin gabe.
- Hileta eta ehorzketen berri emateko, hildakoen zuzeneko senide edo hurbilekoen berariazko baimena beharko da.
- Egoera dramatikoak hedatu behar direnean, informazio–interesak bateragarri egin beharko dira, biktimei zein senideei beharrezkoa ez den mina saihesteko betebeharrarekin.
- Intimitaterako eskubidea bereziki errespetatu behar da sufrimendu eta zorigaitzezko kasuetan. Biktimen mina sentimendu pribatua da.

#### **4.3. ELKARRIZKETAK, ESKAKIZUNAK ETA JAZARPENAK BIKTIMEI ETA HURBILEKOEI**

##### CAC

- Ez da onargarria biktimei eskakizunak egitea egoera desegokietan, aukeratzeko edo erabakitzeke benetako askatasunik ez dutenean edo edozein arrazoi dela haien sufrimendua areagotu ba dakieke.

##### ERRESUMA BATUA

- Min edo hunkipen pertsonaleko kasuetan, galderak eta hurreratzeak diskrezioz eta zuhertasunez egin behar dira, eta argitaratutakoa sentikortasunez tratatu behar da. Horrek ez du mugatu behar prozedura judizialei eta ikerketei buruzko informazioa emateko eskubidea.

##### BERRIA

- Elkarrizketa bat publikatu aurretik elkarrizketatua larri zauritu, gaixotu edo hiltzen bada, ez da publikatuko, non eta ez duen haren edo familiaren baimena.

##### EITB

- Kazetariak ez diete jazarriko hondamendi edo istripu batek zauritu edo kaltetutako pertsoneri, elkarrizketak lortzeko helburuz.
- Kontuan hartu beharra dago biktima nahastu bat ez dagoela baimena askatasunez emateko moduan.

##### RTVE

- Gertaerak biktimen eta haien senideen mina eta intimitatea ahalik eta gehien errespetatuz tratatuko dira, eta biktimei eta/edo haien senideei adierazpenak eta irudiak lortzeko presioa edo jazarpena eragin diezaizkiekeen jarrera oro saihestuko da.

#### **4.4. SUIZIDIOAK**

##### KATALUNIA

- Suizidio kasuak soilik hedatuko dira garrantzi pertsonala edo interes publiko argia dutenean, kontuan hartuta, gainera, efektu mimetikoak izateko arriskua dagoela.

##### ERRESUMA BATUA

- Antzeko ekintzak ekiditeko, suizidio bati buruzko informazioa ematean, erabilitako metodoari buruzko gehiegizko xehetasunak saihestu behar dira, komunikabideek legezko prozedurei buruzko informazioa emateko duten eskubidea alde batera utzi gabe.

##### BERRIA

- Bere buruaz beste egin duten pertsonen izen osoa ere ez da jakinaraziko: nahikoa izango da inzialak ematea. Pertsona publikoekin bakarrik egin liteke salbuespena.

## VOCENTO

- Oso pertsona ezagunak badira izan ezik, edo gertaerak oihartzun handia izan badu, suizidioak ez dira albiste. Hala ere, zuhurtziaz jokatu da heriotza bat suizidiotzat jotzen denean, eta ez da horrelakorik egingo polizia– edo iturri judizialek datorren egiaztapen osoa ez badago.

## EL PAÍS

- Kazetariak zuhur jokatu beharko du suizidioei buruzko informazioekin. Lehenik eta behin, itxura ez delako beti errealitatearekin bat etortzen eta, era berean, psikologiak egiaztatu duelako albiste horiek suizidiorako joera zuten eta une horretan imitazioarako estimulu bat sentitzen duten pertsonak bere buruaz beste egitera bultzatzen dituztela.
- Suizidioak bakarrik argitaratu beharko dira pertsona ospetsuak direnean edo interes orokorreko gizarte–gertakariak direnean.

## EL MUNDO

- Suizidioak ez du berez albiste izan behar. Egilea pertsonaia garrantzitsua denean edo gauzatzeko moduagatik, adinagatik edo atzean ezkututzen den arazo sozialagatik gertaera esanguratsu bihurtzen denean bakarrik izango da.
- Suizidio baten berri emateko orduan, bi kontu hartu behar dira aintzat: Lehena, psikiatren eta psikologoaren irizpide orokorra baloratu behar da, suizidio bati buruzko albisteek beste biktima potentzial batzuk erakartzen dituztela ohartarazten baitigute. Bigarrena, ez dela presaka ibili behar eta hildakoak bere buruaz beste egin duela esan behar bakarrik itxuragatik. Albistean sakondu behar da.

## LA VANGUARDIA

- Suizidioa ez da berez albiste. Hildakoa pertsonaia garrantzitsua bada edo gertaera horrek pertsonaren heriotzatik haratago ondorioak izan baditu bakarrik argitara daiteke. Hala ere, esperientziak erakusten digu suizidio baten itxuraren azpian hilketa bat ezkuta daitekeela. Kazetariak ezin du hitz hori erabili iturri polizialek edo judizialek berresten ez badute. Gainera, adituek suiziden izaera imitatzailaz ohartarazi dute.

## EITB

- Suizidioa oso gai labaina da; oraindik ere, ia–ia tabua gure gizartean. Gaiari heldu behar bazaio, zuhurtziak gidatuko ditu erabaki guztiak, eta azken hitza arduradun editorialek izango dute.
- Frogatuta dago imitazio–jokabideak garrantzitsuak direla suizidioengatik heriotzetan. Tratamendu informatiboan egon daiteke imitazioaren ondorioz suizidio gehiago gertatzeko edo eragozteko gakoa, bereziki kolektiborik ahulenetan. Gizarte–erantzukizunez jokatzeari, beraz, funtsezkoa da.
- Suizidioari buruzko informazioan bazter utzi behar dira sentsazionalismoa, ikuskizuna eta morboa.
- Arreta handiz jokatu da sektorerik ahulenak babesteko: haurrak, nerabeak, gaixo mentalak, e. a. Gai honi buruzko informazioa kolektibo horietan zabaltzeak izan dezakeen eragina ezin daiteke aurrez ikusi.
- Tratamendu informatiboan, aintzat hartu behar dira biktimen senitartekoak eta lagunak. Garrantzitsuagoa da intimitate–eskubidea eta haien mina eta sufrimendu psikologikoa errespetatzea, informazio–eskubidea errespetatzea baino.
- Suizidioen gaineko datuak eta estatistikak zorrotasun eta arduraz erabili behar dira.

- Maiz depresioaren eta suizidioaren artean izaten den erlazioa dela eta, komenigarria da depresioari buruzko sintomez, oharpen–seinaleez eta egon litezkeen tratamenduez informatzea.
- Autolesioei edo suizidio–saiakerei dagokienez, ardura handiz babestuko da biktimaren identitatea, gure informazioaren gizarte–oihartzunak ez dezan baldintzatu pertsona horren etorkizuna.
- Ez da xehetasunik eman behar erabilitako suizidio–metodoari buruz. Ez da erakutsi behar biktimaren argazkirik edo irudirik, eta, are gutxiago, suizidio–oharrik.
- Pertsona nabarmen edo ospetsu (kantari, idazle, antzezle...) baten suizidioari buruz informatzean, aintzat hartu beharra dago haren jarraitzaileek segitu beharreko jokabide–eredutzat har dezaketela.
- Ez da aipatuko zenbait lekutan (zubietan, eraikin altuetan, eta abarretan) izaten diren suizidioen maiztasuna. Frogaturik dago horrek dei–efektu garrantzitsua daukala.
- Suizidio baten gaineko informazioa ez da eskaleta edo gidoiaren leku garrantzitsuan jarriko (irekieran, titularretan...), eta ez zaio tratamendu luze edo sakonegirik emango.
- Lekukoan edo auzokideen adierazpenek ez dituzte suizidioaren arrazoiak sinplifikatuko; era berean, adierazpen horiek ez dute estereotiporik sortuko. Adibidez: «ez dago ulertzerik zergatik gertatu den; familia bikainekoa zen, maila onekoa; maitagarria zen, seme–alabentzat ama ezin hobea...».
- Suizidioei buruzko informazioetan ez da iruzkinen atala aktibatuko.

#### RTVE

- Sentikortasun berezia. Jarraibide orokor gisa, saihestu egin behar dira suizidioei eta autolesio larriei buruzko informazioak eta irudiak eta, are gehiago, protagonistak haurrak edo nerabeak direnean. Suizidioa gai bereziki sentikortzat jo behar da, bai gaurkotasuneko programetan, bai fikziozkoetan ere.
- Salbuespenak. Salbuespen gisa eta oso arrazoi justifikatuengatik bakarrik aipatu ahal izango da suizidioa heriotza baten kausa gisa, bereziki pertsona ospetsu garrantzitsuak direnean edo interes orokorreko gizarte–gertaera bat adierazten dutenean.
- Informazioa erantzukizunez. Erantzukizunak berekin ekarri behar du, besteak beste, ahaideen sentimenduak aintzat hartzea, hartutako suizidio–metodoaren deskribapen zehatza saihestea eta publiko hartzailearen sentikortasuna kontuan hartzea.
- Pertsona bat nola hil zen adieraztea garrantzitsua izan daitekeen arren, xehetasun gehiegi emateak beste pertsona batzuk metodo horiek saiatzera bultzatu ditzake.
- Deskribapen esplizituek hildakoaren senideen eta gertukoaren babesgabetasuna areagotu dezakete, bereziki haurrena.
- Suizidioa ez da justifikatu behar imitatze moduko balio moralekin, hala nola ausardia, maitasuna, duintasuna, ohorea eta abar.
- Suizidioa ez da lotu behar *arrakasta, irteera, aukera, konponbide* eta antzeko adierazpenekin.

#### 4.5. TRAGEDIAK: ESPEKULAZIORIK ETA AIERURIK GABEKO ZEHAZTASUNA

##### FAPE

- Hunkitutako pertsonen artean min edo atsekabe–elementuak badaude gaien informazio–tratamenduan, kazetariak bere sentimendu eta inguruabarrei buruzko funsgabeko esku–sartzeak eta beharrezkoak ez diren espekulazioak saihestuko ditu.

#### CAC

- Komeni da audientziaren kezka murrizteari ahalik eta azkarren lehentasuna ematea, pertsona askoren larritasuna gutxitzeko edo saihesteko. Iturriak argi eta zorrotz aipatzea eta informazio zehatza, egiaztatua eta kontrastatua ematea da hori lortzeko sistemarik onena.
- Komenigarria da beti ematea, esplizituki, zuzeneko eta zeharkako lekukoen elkarrizketen edo adierazpenen testuingurua, eta zehaztea, adibidez, nola lortu diren.
- Beharrezkoa ez den beldurra ez sorrarazteko funtsezkoa da gertaera tragikoei, haien zergatiei edo ondorioei buruzko espekulazio edo aieru oro saihestea.
- Inola ere ezin da biktimen zerrendarik iragarri zerrenda ofizialak eta egiaztatuak eduki arte. Halaber, ziurtatu behar da inplikaturako pertsonak eta senideak informazioaren jakinaren gainean daudela hedatu aurretik.
- Komeni da, halaber, zuhurtziaz jokatzeko zergatien arrazoibideak eta sekuentziak aurkezteko unean. Bereziki ezinbestekoa da erruduntasun-egozpenik ez egitea, ezta pertsonen gaineko susmorik ez egitea ere (gidariak, makinistak, pilotuak, etab.).
- Kontu bereziz ibili bideo-zaleen irudiak emateko orduan.
- Kontuan izan behar da zaila dela 'larritasuna' edo 'interes informatiboa' neurritz esleitzea, biktimen kopuruaren, estatusaren, arrazaren, adinaren... arabera, biktima edo senide batzuentzat edo herritarren edozein talderentzat alderaketa inplizitu diskriminatzaile edo kaltegarririk ez ezartzeko.

#### EITB

- Berehala informatu beharrak ezin justifika dezake kausen, identitatearen eta bestelako zirkunstantzien gaineko espekulazioa.

#### RTVE

- Desagertzeen kasuan, bereziki helduen kasuan, segurtasun-indarrek eta gertuko beste iturri batzuek erabiltzen dituzten hipotesiak egiaztatu behar dira, justifikaziorik gabeko alarma orokorra saihesteko.
- Azalpen sinplistik eta espekulazioan oinarritutakoak saihestu behar dira.
- Desagertzeen ehuneko handi bat borondatezkoak dira. Desagertzearen alarma piztu aurretik poliziak ematen duen denbora-tartea errespetatu behar dugu.
- Haurren eta zaharren kasuan, ordea, epe hori laburrena izango da, protagonisten babesgabetasuna dela eta, baina, hala ere, informazio-jarraipena bilaketaz arduratzen diren indarrek lankidetzan egiten hasi behar da.

#### **4.6. TRAGEDIEI ETA HONDAMENDIEI BURUZKO INFORMAZIOETAN IRUDIAK LORTZEKO EDO HAUTATZEKO KONTUAN HARTU BEHARREKOAK**

#### CAC

- Saiatu behar da hunkitutako pertsonak agertzen diren planoetan haien pribatutasuna ez urratzen. Zoomarekin kameraren hurbiltasun-sentsazioa behaketa zuzenaren bidez lortuko litzatekeena baino gehiago handitzeak sarritan urratu egin dezake.
- Zauriturik eta talka edo sufrimendu-egoeran dauden pertsonen lehen planoak edo plano laburrak ez lirakeke eskuratu behar, ezta igorri ere. Edonola ere, inoiz ere ez haien baimen espliziturik gabe.
- Kasu jakin batzuetan, irudietan eta/edo ahotsean esku hartu behar da, minduta daudenen anonimotasuna zaintzeko eta intimitatea bermatzeko.

- Arreta handia jarri behar da gertaera tragikoei buruzko artxiboko irudien berrerabilpenean, batean jende askorengan sufrimendu handiko egoerak gogora baititzakete.

#### VOCENTO

- Zuhur jokatu da argazki desatseginak edo, irudietako protagonistengandik hurbil daudelako, balizko irakurleentzat iraingarriak edo mingarriak izan daitezkeenak argitaratzean.
- Oro har, irudi gogorak edo bereziki mingarriak soilik argitaratuko dira, egunkariko zuzendariaren iritziz, albistearen informazio ordezkazina eta aberasgarria ematen dutenean.

#### LA VANGUARDIA

- Irudi desatseginak agertzen diren argazkien kasuan (istripua izan dutenak, eraso terroristen edo gerra-erasoen biktimak, eta abar), argitaratzeko erabakia hartu behar da, alde batetik, informazio-balioa aztertu ondoren, eta, bestetik, kaltetutako inguruari (senideak eta hurbilekoak) min ematea saihestu behar da.

#### EITB

- Saihestu beharrekoa da shock edo sufrimendu handi-handiko egoeran dauden biktimengana hurbiltzea kamera. Mina errespetatzeko, gutxieneko distantzia zaindu behar da.
- Audientziari zenbait irudik sorraraz diezaioketen inpaktu edo shockaren aurrean babesa emateko, gomendagarria da gertatutakoa ulertzen laguntzen ez duen lehen planorik ez ematea.
- Ez da eskainiko biktimak nahigabe identifika dezakeen irudirik (biktimen gauzak, ibilgailu-matrikulak...).

#### RTVE

- Irudi bereziki gogorak eta/edo izugarriak balio informatibo handia dutenean eta horiek barreiatzea gertatutakoaren garrantzia ulertzeko beharrezkoa den kasuetara mugatu behar dira.

### 4.7. SENTSACIONALISMOA SAIHESTEA TRAGEDIEN BURUZ INFORMATZEAN

#### CAC

- Intimitatea eta pribatutasuna eskubide unibertsalak dira, eta jatorrizko herrialdea edo tartean dauden pertsonen egoera edozein dela ere aplikatu behar dira. Ez litzateke zaurituen edo hildakoen plano laburrik eman behar, nahiz eta komunikabideen erreferentzia-eremutik urrun dauden gertaerak izan.
- Batez ere funtzio ikusgarri bat duen edozein efektu edo baliabide saihestu behar da.
- Ikus-entzuleak ez nahasteko, argi eta garbi adierazi behar da gertaera tragiko baten zuzeneko hedapenaren eta haren berreraikitze dokumentalaren (aurrez grabatutako irudiekin eta soinuarekin egina) edo fikzio dramatizatuaren bidezko berregitearen arteko bereizketa.
- Erabiltzen den lexikoari arreta berezia jarri. Komeni da gertaera baten kontakizuna beharrik gabe dramatizatu eta ikusgarri egiten duten adjektiboak, esaerak eta topikoak saihestea, biktimak, senideak edo kaltetuak beldurtzeko balio bait dezakete.

#### BERRIA

- Ez da onartuko informatzeko helbururik ez duen argazkirik. Istripu, atentatu eta hondamendiak ilustratzeko, ez da lehen-lehen planoko argazkirik argitaratuko: ez da beharrezkoa odola eta sufrimendua gertutik ikustea, tragediaren neurriaz jabetzeko.

#### EITB

- Minaren berri emateko, ez da beharrezkoa xehetasun lazgarritz betetako kontakizun gordina egitea.
- Ezbeharren eta hondamendien gaineko informazioaren soinu-tratamenduak ez du saminean sakonduko.
- Zuhurtziaz aukeratu behar dira kontakizunari laguntzen dioten girotze-musika eta gainerako soinu-elementuak: hitz kolokialek eta gertaerak berak baino dramatismo handiagoa eragiten duten soinuek areagotu egin ditzakete larritasuna eta samina.

#### RTVE

- Profesionalek emozioaren gurtza sustatzea eta haren edukien dramatismoa eta/edo ikusgarritasuna areagotzera bideratutako praktika oro saihestu behar dute.
- Giza interesa duten istorioak geroago kudeatu behar dira, morboan, atsekabeen eta sensazionalismoan jostatu gabe.
- Iraganean izandako antzeko gertakariekin alderatzea zorrotz egin behar da, tragediaren garrantzia beharrik gabe handitu gabe ("...-ren istripurik larriena").
- Gertaera tragiko batetik datozen irudietan edo soinuetan oinarritutako autopromozioak saihestu behar dira.
- Irudiak musikarekin edo mina nabarmentzen duten beste efektu batzuekin nahastea zaindu behar da.
- Era berean, irudiak/soinuak behin eta berriz errepikatzea eta kaltetuen lehen planoak eta zoomak erabiltzea zainduko da.
- Zaurituen eta hilotzen lehen planoak beti dira ez beharrezkoak, baita atentatu terroristen biktimak badira ere.
- Ez dago justifikaturik eragin eta/edo indarkeria handiko irudiak edo soinuak bakarrik beren ikus edo entzumen-balioagatik erreproduzitzea.

#### **4.7. URRUNTASUN GEOGRAFIKOAN GERTATUTAKO HONDAMENDI HUMANITARIOEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK**

FAPE, 2014/92 txostena

- Adingabeen babesa beste herrialde batzuetako adingabeekin ere eman behar da; izan ere, horien irudiak ohikoak dira hondamendi humanitarioei buruzko berrien tratamenduan.

#### CAC

- Ematen dituzten hedabideen erreferentzia-eremu hurbiletik urrun gertatutako tragediei buruzko min-irudiek ez dute eragin behar, ageriko tratu-desberdintasunen bidez, 'gainerakoen' sufrimendua hutsaltzea, hurbileko sufrimenduarekin alderatuta.
- Sarritan hondamendiek kaltetutako herrialde txiroetan gosea, pobrezia edo mina islatzen duten irudiek elkertasuna bultzatzea, baina zenbaitetan haien egoera estereotipa dezakete ere, eta kalte morala eragin.

#### EITB

- Jazoera bat hedabidearen zabalkunde-eremutik hurbilago edo urrunago egoteak tratamendu informatiboa baldintzatu egiten du, baina, horregatik, distantzia geografikoak ez die garrantzia edo dimentsio tragikoa murriztu edo hutsaldu behar urruneko hondamendiei.

## 5. INFORMAZIOA LORTZEKO METODOAK (KAMERA EZKUTUA)

### SARRERA

- Ikuspuntu deontologikotik, kode gehienek informazioa lortzeko metodoak nolakoak izan behar diren aipatzen dute, kalifikatzean desberdinak badira ere:
  - Zuzenak
  - Legezkoak
  - Duinak
  - Zilegizkoak
  - Zintzoak...
- Batzuek ohiko metodoa –irekia– erabiltzeko salbuespenak ezartzen dituzte, eta metodo 'ezkutua' aurreikusten dute ia beti informazioaren 'interes publikoa' dela eta.

### 5.1. NOLAKOAK IZAN BEHAR DIREN INFORMAZIOA LORTZEKO METODOAK

#### EUROPA

- Kazetaritzan aritzean, xedek ez ditu bitartekoak justifikatzen; beraz, informazioa baliabide legal eta etikoen bidez lortu beharko da.

#### FIP

- Kazetariak ez du metodo desleialik erabiliko informazioa, irudiak, dokumentuak edo datuak lortzeko.

#### FAPE

- Bere betebeharrak profesionalak betetzean, kazetariak metodo duinak erabili beharko ditu informazioa lortzeko, eta horrek legez aurkako prozedurak baztertzen ditu.

#### KATALUNIA

- Informazioa lortzeko, metodo zilegiak eta duinak erabiliko dira.

#### GALIZIA

- Informazioa edo irudiak lortzeko metodo duinak erabili behar dira, legez kontrako prozedurak erabili gabe. Informazioa erostea kazetaritzaren etikaren kontrakoa da.

#### BERRIA

- Kazetariak zilegizkoak diren bideak erabiliko ditu argazkiak, adierazpenak eta dokumentuak lortzeko.

#### EL MUNDO

- Irudien eta hitzen "lapurreta". Ez da beharrezkoa behin eta berriz esatea praktika onartezina dela kazetari batentzat. Baina gogoratu behar da etikoki onartezina dela horrelako dokumentuak eskuratzea kazetaria dagoen lekura legitimoki sartu denean, baina haien jabeen edo legezko zaindarien baimen espliziturik lortu gabe.

#### EITB

- Ez da emitituko iruzurren edo gezurren bidez lortutako irudirik edo soinurik.
- Aurreneko betebeharrak profesionala egia errespetatzea da, intimitaterako eta pertsonen ohore eta irudirako eskubideak eta errugabetasun-presuntzioa bermatuta; horrez gainera, adierazpenak, dokumentuak eta irudiak metodo zilegiekin lortuko dira.
- Arreta bereziarekin jokatu behar da adingabeak, segurtasun-indarretako kideak, mehatxatutako pertsonak edo dena delako arrazoiagatik izena isilpean gorde behar zaien pertsonak grabatzean. Editoreak neurtu beharko du grabazio horren balio informatiboa, eta berak



erabakiko du emititu ala ez. Emititzekotan, beharrezko baliabide teknikoak erabiliko dira (pixelatzea, lausotzea...), anonimotasuna bermatzeko).

- Bizitza pribatuari lotutako irudiak grabatzeko baimena lortze aldera, ez dira pertsonaren ahultasuna, kalteberatasuna edo babesgabetasuna baliatu behar.
- Baimenik gabe grabatutako ikus-entzunezko materialaren emisioak Zuzendaritzaren berariazko baimena beharko du.

#### RTVE

- Kamerak eta mikrofonoak erabiltzeak grabazioaren xede diren pertsonak argi eta garbi hautemateko modukoa izan behar du, onartzen duten ala ez, eta zer baldintzetan, erabaki ahal izan dezaten.

## 5.2. KAMERA ETA MIKROFONO EZKUTUAK

### KATALUNIA

- Onartezina da kamera ezkutuak eta beste edozein prozedura maltzur edo engainagarri erabiltzea informazio, irudi eta lekukoak lortzeko.

### SPM

- Hedabide guztietan, eta, bereziki, ikus-entzunezkoetan, ezin izango da irudi edo elkarrizketa pribaturik hedatu tartean den pertsonak jakin gabe grabatu badira, delitu-gertaera denean izan ezik.

### ERRESUMA BATUA

- Prentsak ez ditu eskuratu behar, ezta argitaratu, baimenik gabe, kamera edo entzuketa-gailu ezkutuen edo mezu elektronikoen, telefono elkarrizketa pribatuen, telefono mugikorren bidez edo digitalki lortutako informazio pribatua eta dokumentuak ere.

### VOCENTO

- Elkarrizketa edo dokumentu pribatuetatik lortutako informazioak, iturriak behatua izan dela jakin gabe, ez dira argitaratu behar egiaztatu eta kontrastatu gabe.

### EL PAÍS

- Informazioa lortzeko ez da kamera ezkutuaren sistema erabiliko irizirraren edo eskubideen urraketaren bidez.

### EL MUNDO

- Onartezina da teleobjektiboak, mikrofono ultrasentikor edo bestelako baliabide teknikoak erabiltzea eraikin edo finka pribatuetan pertsonen irudiak eskuratzeko (eta ez bakarrik lau pareten artean).

### BBC

- Grabazio ezkutuaren metodoa ez da erabili behar eguneroko kazetaritza-tresna gisa, ezta erreportaje edo kazetaritza-saio batean 'drama sartzeko' ere.

### RTVE

- Kamera eta mikrofono ezkutuak erabiltzeko erabakia Zuzendaritzak onartu behar du alde zuzenetatik.
- Kamera eta mikrofono ezkutuekin egindako grabazio bat bakarrik igorri ahal izango da ezagutzeko moduan agertzen diren pertsonen baimena lortu ondoren. Kasu horietan, adostu ezin izan diren pertsonen aurpegiak distortsionatu egingo dira, oinezkoak eta identifika daitezkeen beste pertsonak ere barne.

### **5.3. INTERES PUBLIKO EDO OROKORREKO INFORMAZIO ARGIA IZATEAGATIK EZKUTUKO METODOAK ERABILTZEA JUSTIFIKATZEN DUTEN EGOERAK EDO INGURUABARRAK**

#### **KATALUNIA**

- Salbuespen izan daitezke zalantzarik gabeko interes publikoko gertaera edo gertaerekin zerikusia duten egoerak, bai eta informaziorako eskubidea behar bezala betetzeko beste aukerarik ez dagoenean ere.

#### **AEB**

- Kazetariak saihestu egin behar ditu informazioa biltzeko ezkutuko metodoak edo bestelako era maltzurak, ohiko eta irekiak diren metodoek publikoari funtsezko informazioa ematen ez diotenean izan ezik.

#### **ERRESUMA BATUA**

- Faltsukerietan edo iruzurretan aritzea interes publikoaren mesedetan soilik justifika daiteke, eta bakarrik informazioa beste bide batzuetatik lortu ezin denean.

#### **INTERES PUBLIKOAREN DEFINIZIOA:**

– Interes publikoak, bestelakorik izan badaitekeen ere, honako hauek hartzen ditu barnean:

1. Delitu bat edo irregulartasun larri bat aurkitzea edo ezagutaraztea.
2. Osasun eta segurtasun publikoaren babesa.
3. Gizabanako edo erakunde baten adierazpen edo ekintzaren baten bidez herritarrak engainaturik izan daitezen saihestea.

- 16 urtetik beherako haurrak tartean daudenean, erredaktoreek interes publiko berezia frogatu beharko dute, haurrari normalean gailentzen zaion interesa baino handiagoa.

#### **VOCENTO**

- Informazio batean erabiltzen diren dokumentu fisiko, irudizko edo elektronikoko guztiak haren emaile, jabe edo iturri baimenduaren baimenarekin barreiatu behar dira. Arau orokor hori ez da aplikatuko agiri horiek delitu edo jokabide desegoki edo zentsuragarriak daudela frogatzen dutenean.
- Egunkariaren zuzendariak baimendu behar du ezkutuko metodoak erabiltzea, eta irakurleei azaldu behar die.
- Aparteko garrantzia duten eta bestela ezagutu ezin diren informazioetan bakarrik izango dira onargarriak.

#### **BBC**

- Kamera ezkutua bakarrik erabili ahal izango da delitu–egoerekin edo egoera antisozial nabarmenekin zerikusia duten gaiak aztertzeko ikerketa–metodo gisa, baldin eta:
  - Egoera horien ebidentzia argiak izatea edo egoera horiek gauzatzeko asmoa izatea.
  - Argi dagoela hurbilketa zuzen batek ez lukeela funtzionatuko.
  - Grabazioa beharrezkoa bada gertatutakoa frogatzeko.
- Edo legeek gizakiaren oinarritzko eskubideak edo printzipio demokratikoak babesten ez dituzten herrialdeetan era irekian lortu ezin daitekeen kazetaritza–gaiak eskuratzeko.

## EL PAÍS

- Kamera ezkutuaren zilegizko erabilera (bide publikoan delitu–gertaerak grabatzea, adibidez, beren zigorgabetasun edo zaintzarik ezagatik salatzeke; kazetariak horietan esku hartu edo eragin gabe) tartean dauden pertsona edo erakundeen nortasuna babestu beharko du beti, eta ez du hori ezagutarazi dezakeen daturik eskainiko.
- Kamera ezkutuaren sistemarekin bakarrik lan egingo da honako kasu hauetan:
  - Horixe denean informazioa lortzeko azken baliabidea
  - Dudik gabeko Interes orokorrekoa denean
  - Kazetari batek ere ez duenean beste inoren nortasunik ordezkatu
  - Leku pribatuetan indarrez sartu ez denean
  - Intimitaterako, ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea urratzen ez direnean.
- Kamera ezkutua erabiltzearen helburu nagusia ez da kazetariak pertsona jakin bati publikoki zerbait egozte, baizik eta agintari eskudunak salatutako gertakariak konpontzea; horretarako, informazio–komunikabideek iritzi publikoaren aurrean duten eragina erabiltzen da.

## EITB

- Ezkutuko kameraz grabatzea mutur–muturreko baliabidea da, kasu berezietarako baino ez.
- Ikerketa–kazetaritzan bakarrik egon daiteke justifikatuta. Izan ere, horrelako kasuetan, informazio–eskubideak eta albistearen interes publikoak dute lehentasuna, beste gauza guztien aldean. Ezkutuko kamera erabiltzeko, Albiste Zuzendaritzaren baimena lortu behar da.

## RTVE

- Kamera eta mikrofono ezkutuak erabiltzea, pertsona batek bere irudia eta hitzak grabatzen ari direla jakitea eragozten dutenak, kasu oso berezietan baino ez dago justifikatuta, hala nola interes publikoari eragiten dioten legez kanpoko praktikak edo delituzko jarduerak daudela frogatzen saiatzen direnean. Kamera eta mikrofono ezkutuak azken baliabideak dira benetako interes publikoko akusazio edo salaketa bat frogatzeko.
- Sarbide publikoko leku pribatuetan, hala nola aireportuetan, merkataritza–guneetan edo aisialdirako lekuetan, zilegi da jabeen alde aurreko baimenik gabe grabatzea, delituak egin direla edo jokabide antisozialak egin direla erakutsi nahi denean.

## 5.4. KAZETARIEN NORTASUNA FALTSUTZEA

### FIP

- Kazetariak beti emango du bere izaeraren berri, eta ez du erabiliko irudien eta soinuen ezkutuko grabaziorik, baldin eta berarentzat objektiboki ezinezkoa ez bada interes orokorreko informazioa beste modu batera biltzea.

### ERRESUMA BATUA

- Faltsukerietan edo itxurakerietan aritzea, baita ordezkoen edo bitartekarien bidez ere, oro har, interes publikoaren mesedetan bakarrik justifikatu daiteke, eta soilik informazioa beste bitarteko batzuen bidez lortu ezin denean.

## VOCENTO

- Kazetariak nortasuna ordezkatzeko eta informazioa lortzeko ezkutuko metodoak saihestu behar ditu.
- Beti da hobe kazetaria halakotzat identifikatzea. Berezko identifikazioak errealitatea aldatzen duenean, alde batera utzi behar da, baldin eta kazetariak bere burua herritar arrunt gisa aurkeztu eta jarduten badu (jaketxe baten kritika egiteko, manifestazio bati buruzko erreportaje bat egiteko, Administrazioak herritarrekin duen portaerari buruzkoa, eta abar).

## EL MUNDO

- Nortasun faltsuak eta mozorroak. Etikoki onargarria denaren eta onartezina denaren arteko muga giza bizitzari eskaintzen zaion zerbitzuan egon liteke: informazioa ezin bada beste modu batez lortu eta herritarren bizitza edo osasuna arriskuan badago, mozorroak edo nortasun faltsuak erabiltzea aukera bat izango da.

## EITB

- Lan egin bitartean, kazetariak profesional gisa identifikatuko dira, eta informatzaileak direla emango dute ezagutzera.
- Beharrezkoa denean, ageriko edo begi-bistako lekuren batean jarriko dute hori ziurtatzen duen identifikazio-txartela. Halaber, beharrezkoa denean, dagokion agintaritzari eskatuko diote informatzeko eta informatuak izateko eskubidea bermatuko dien bereizgarria.

## WASHINGTON POST

- Albisteak bilatzean, erredaktoreek ez dute beren nortasuna faltsutuko. Ez dira poliziak, medikuak edo beste edozein lanbidetako kide bezala identifikatuko, kazetariak bezala baizik.

## 5.5. BIDE PUBLIKOETAN IRUDIAK HARTZEA

### EITB

- Irudiak eta soinuak grabatzen direnean, zorrotz errespetatu behar da indarrean dagoen legeria; besteak beste, jasota dauzkan funtsezko eskubideak: ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea, eta norberaren irudia.
- Ez da pertsona ospetsuen bizitza pribatuko irudirik zabalduko, nahiz eta toki publikoetan grabatuak izan. Adibidez, agintari politikoak ez dira grabatuko hondartzan familiarekin daudela.
- Informazio orokorra ilustratzeko bide publikoan dabilzan pertsonak grabatzen direnean (baliabideplanoak), pertsonok ez ezagutzeko moduan egin behar da grabazioa, batez ere albisteak beroriekin zerikusirik ez badauka, edo gizarteak gaitzesten dituen jokaerak edo egoerak azaltzen badira.
- Teknologiak ez du intimitatea urratzeko biderik eman behar, ezta toki publikoetan ere.
- Gaur egun, esparru publikoaren eta esparru pribatuaren arteko muga guztiz lausotuta dago, eta horrek zail egiten die kazetariei, eguneroko lanean, gorago aipaturiko eskubideak urratzen ari diren ala ez jakitea. Nolanahi ere den, pertsonak kasu hauetan grabatzea baimentzen du legeak:
  - Kargu publiko batean edo ospe handiko lanbide batean ari direnean, baldin eta irudiak ekitaldi edo toki publiko batean grabatzen badira.
  - Pertsonaren irudia osagarria baino ez denean.

- Zalantzarik izanez gero, profesionalak ez dute egingo inoren irudi–eskubidea urra dezakeen grabaziorik.
- Telefono bidezko edo bideo–atezain bidezko hizketaldia grabatzen denean, emititu aurretik baimena lortu behar da; bestela, ahotsa distortsionatu egin behar da.
- Ezinbestean, baimena beharko da toki pribatuetan grabatzeko, eta toki publikoetan grabatzeko ere bai, intimitate–eskubidea urratzeko arriskua egonez gero. Esaterako, erlijio–esparruak, ikastetxeak, merkataritza–guneak, aireportuak, ospitaleak eta antzekoak publikoak dira, baina toki horietan egiten diren jarduerak pertsonen pribatutasunari edo intimitateari atxikita daude. Horrelako tokietan grabatzeko, lehenbizi informazio–eskubidearen eta intimitate– eta irudi–eskubideen arteko balantzea aztertu behar da.
- Baimenduta dago bide publikotik eraikinen kanpoaldea grabatzea. Hala ere, segurtasunari eta militarren instalazioei lotutako eraikinak grabatu nahi direnean, hobe da idatzizko baimena eskatzea.
- Prentsaurrekoetan, elkarrizketetan, erakunde–zeremonietan eta antzeko ekitaldietan agertzen diren segurtasun–indarretako kideak mugarik gabe graba daitezke. Gainerakoan, irudiak pixelatu barik emitituko dira, betiere segurtasun–indarren aldetik bestela egiteko eskakizuna etortzen ez bada.
- Poliziaren hesia errespetatu egin behar da –bide batez esanda, hesiak bakarrik behar luke komunikabide guztientzat–. Informazioa jaso beharra dela eta, gerta liteke poliziak hesitutako esparrutik bertatik grabatu behar izatea. Halakoetan, aurretik polizia–arduradunaren baimena eskuratu behar litzateke.
- Zigilu judizialak ezinbestean errespetatu behar dira, beti.